


# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktua eta enpresa aurrera eramateko funtsezko baliabide batzuk beharko ditugu. Hiru zatitan banatuta daude: giza baliabideak, makinaria eta fabrika. Hiru baliabide hauek laguntzen digute gure produktua sortzen.

Funtsezko baliabideak beharrezkoak diren baliabideak dira, kasu honetan produktu bat sortzeko. Era berean, baliabideak pertsona batek helburu bat lortzeko edo behar bat asetzeko erabiltzen duen laguntza edo bitartekoa da.

Giza baliabideei dagokionez, 15 langile izango dira enpresan, taldetan banatuta daude eta talde bakoitza adar desberdinetan arituko da; zientifikoan, diseinuan, eta administrazioan. Lehenik eta behin, 2 zientzialari kualifikatu beharko ditugu produktuaren homologazioa aurrera eramateko; hau da, produktuarekin probak egingo dituzte jakiteko dena ondo dagoen edo bere funtzioa ondo egiten duen. Diseinu tridimentsionala egingo dituen 2 langile izango dira, diseinu teknikoan zentratuak direnak. 3 ingeniari beharko ditugu sistema elektronikoa garatzeko, bakoitza sistema elektrikoaren zati batetaz arduratuko da. Azkenik administrazioan arituko diren 4 pertsona baliatuko ditugu, enpresa kudeatzeko arduradura dutenak.

Makinariari dagokionez, 3 makina izango ditugu, mota desberdinekoak, montajea egiteaz arduratuko direnak, bai sistema elektronikoarena bai produktu bukatuarena ere. Bi makina sistema elektronikoa osatzeaz arduratuko dira; izan ere, gure funtsezko elkarreterara bakarrik plaka zentralaren produkzioa deribatuko dugu, baina prozesadorea gure enpresan amaituko dugu. Hirugarrena azken produktuaren pieza desberdinak (kanpo-egitura zurruna, barrubiguna, sentsoreak, sistema elektronikoa...) ensanblatzeaz arduratuko da, bai buruan kontaktuan egongo den gailuarena, bai oinarriarena ere. 4 langile egongo dira makina hoiek agintzen eta kontrolatzen.



Kokapenari dagokionez, fabrika bat edukiko dugu gure makinak jartzeko eta produktua sortzeko. Alkilatuta, hilean ordainduta, fabrika ertain izango da. Fabrika baliabide garrantzitsu bat da produktuaren ekoizpenaren oinarria edukitzeko.

